

**Josiuena baserritik Ugarkalde auzoko sarbiderako bide-zatia
konpontzeko dirulaguntza hitzarmena**

Bildurik

Alde Batetik, Izaro Elorza Arregui andrea, 15396342-G NAN duena, Oñatiko Foru enparantza 1ean lan egiten duena, Alkate izanik Udal Korporazioaren izenean.

Bestetik,

Jose M^a Markuleta Agirrebengoa, 72.566.898-N NAN duena, Larraña auzoa 20A-Aramaixuena baserrian bizi dena.

Luis Ugarte Sagastizabal, 08.902.216-C NAN duena, Larraña auzoa 47 Eguzkitza baserrian bizi dena.

Elias Elorza Ugarte, 15.328.491-A NAN duena, Larraña auzoa 48- eskuma Erreitzza baserrian bizi dena

Javier Aldekoa Beitia, 72.571.577-E NAN duena, Larraña auzoa 46 Aldekoa baserrikoa

Jose Miguel Uribeetxeberria Zabaleta, 72.565.283-F NAN duena, Larraña auzoa 44 Irazola baserrian bizi dena

Azaltzen dute

2022ko martxoaren 21ean Jose Miguel Uribeetxeberria Zabaleta jaunak (Aramaixuena, Izaro, Artadi, Erreitzza, Irazola eta Eguzkitza) etxebizitzaren izenean San Lorentzoko bidegurutzetik hasi eta Ugarkaldeko lotura arteko bide-zatia (250 ml) zabaltzeko eta konpontzeko 8.500 €-ko dirulaguntza ematea eskatu zuen honako baldintza eta konpromisoekin: konponketa-lanak auzolanean egitea, bide-zatia erabilera publikorako zabalik uztea eta 2022ko udan lanak gauzatzea. Hori guztia, baldin eta bidea soilik oinezkoen erabilerarako mugatzen bada.

Aipatu eskaerak, 2020ko abuztuaren 4an (2186/sar) eta 2021eko uztailaren 20an (2617/sar) aurkeztutako eskaerei jarraipena eman die.

2021eko urriaren 21ean Udal Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

lehenengoa.- bidea publiko izateko azterketa eta aukera proposamena egiteko eskaeraren aurrean, 2016ko apirilaren 7an Udal Tokiko Gobernu Batzarrak hartutako irizpidea berrestea.

bigarrena.- nahiz eta bidea pribatua izan, kontuan izanda SI-10 ibilbidea bertatik igarotzen dela eta herritar ugarik aisialdirako erabiltzen dutela, onura publikoa nabaria da, hortaz, bidea hobetzeko proposatzen diren lanak diruz laguntzeko erabakia hartzea. Horretarako, 2020ko eta 2021eko aurrekontuen artean dagoen ezberdintasuna aldeztu aurretik argitu beharko dutela adieraztea.

hirugarrena.- dirulaguntza eman ahal izateko, diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak eta berau garatzeko 887/2006 Errege Dekretuak xedatutakoari jarraituz, 2022ko udal aurrekontuetan izendatutako laguntza jasoko dela adieraztea- Lanak gauzatu aurretik, hitzarmen baten jaso beharko dira laguntza gauzatzeko baldintzak (22.2 a) artikulua).

2021/10/21ean Udal Tokiko Gobernu Batzarrak eskatu bezala, 2020an aurkeztutako aurrekontuaren (8.286,40 € BG) eta 2021eko aurrekontuaren (13.395,66 € BG) arteko ezberdintasuna argitu ondoren, 8.500 €-ko dirulaguntza eskatu zuten.

2022ko apirilaren 28an Osoko Bilkurak egindako bileran 8.500 €-ko dirulaguntza ematea erabaki da, hain zuzen, 2022ko Udal aurrekontuetan jasotako 1.110.481.410.00.20 2022 (5521) "Joxi uena-irazola hobek. dirulaguntzak" kontu sailaren eta bere lotespen-mailaren kargura.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. eta 28. artikuluan, dirulaguntzak zuzenean emateko aukera aurreikusten du, haiek aurrekontuetan izenez jasota badaude eta kontzesioa arautuko duten hitzarmenen bidez egiten bada. Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretuaren 65. artikulua "*aurrekontuetan izendun gisa aurreikusitako diru-laguntzak emateko prozedura*" xedatutakoaren arabera, dirulaguntza eskaeraren ebazpena edo hitzarmena izango dira oinarri arautzaileak dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean xedatutakoaren ondorioetarako. Ebazpenak edo, hala badagokio, hitzarmenak honako alderdi hauek jaso beharko ditu:

- A) Diru-laguntzaren xedea eta onuradunak zehaztea, aurrekontu-esleipenaren arabera.
- B) Dirulaguntzaren gastua eta zenbatekoa egozten zaion aurrekontu-kreditua, onuradun bakoitzarentzat banakatua, bat baino gehiago izanez gero.
- C) Helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko edo pribatutatik datozenak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.
- D) Diru-laguntza ordaintzeko epeak eta moduak, ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera, eta, hala badagokio, onuradunek jarri beharreko berme-araubidea.
- E) Onuradunak diru-laguntzaren helburua bete duela eta jasotako funtsak erabili dituela justifikatzeko epea eta modua.

Indarrean dagoen dirulaguntza araudiak xedatutakoari jarraituta, honakoa

Hitzartzen dute

1.-Hitzarmenaren helburua

Hitzarmen honen xedea da San Lorentzoko bidegurutzetik hasi eta Ugarkaldeko lotura arteko bide-zatia (250 ml) konpontzeko 2022ko apirilaren 28an Osoko Bilkurak onartutako dirulaquntza gauzatzeko baldintzak ezartzea.

2.-Datuen babesa

Aurreko atalen arabera Estatuko Administrazio Orokorreko kontu-hartzailetzari egin beharreko datu pertsonalen lagapena, dagokionaren baimenik gabe egingo da.

3.-Onuradunak

Dirulaguntza honen onuradunak izango dira hitzarmen hau sinatzen duten herritarrak.

4.- Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Hitzarmen honen bidez araututako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bera izan eta aurrekontu publikoen kargura eman daitezkeen beste dirulaguntza batzuekin.

Beste finantzazio-bide batzuk ere lortu balira, izandako gastuaren %100ean ezartzen da finantzazio-muga, hau da, ezingo da inoiz gertatu gain finantzaketarik Udalaren dirulaguntzarekin.

5.-Diruz lagunduko diren lanak

Diruz lagundu da San Lorentzoko bidegurutzetik hasi eta Ugarkaldeko lotura arteko bide-zatia (250 ml) zabaltzeko lanak. Hasieratik erreka zubira arte, mendiari janda zabaduko da metro inguruko zabaleran, egungo harrizko horma eraitsi eta berria jasota. Zubitik gora, egun euri-urak jasotzeko areka estaliko da, behin plataforma berriaren azpitik euri-urak jasotzeko azpiegiturak jarri ondoren.



6.-Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmen honen iraupena aipatu lanak bukatu eta zuritu artekoa izango da, nolanahi, 2022 urtea bukatu aurretik zuritu beharko da.

7.- Diru-laguntza ordaintzeko epeak eta moduak

Kontuan izanda diruz laguntzen den kopurua, egingo diren lanen materialei dagokiela eta gainontzeko lanak auzolanean egingo dituztela, ebatzitako dirulaguntza kopurua %100ean aurreratuko da.

8.- Diru-laguntza justifikatzeko epea eta modua

Lanak bukatu ostean eta Udalaren zerbitzu teknikoek egindako lanei oniritzia eman eta gero, hilabeteko epean egindako lanen faktura eta bankuko ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren laugarren xedapenari jarraituta, *dirulaguntzaren zuriaketa Tokiko Gobernu Batzordeak onartu beharko du, Zerbitzuak eta Landa Garapen Batzordearen proposamena ikusita.*

Hitzarmenaren klausulak bana-banan irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartzen. Eta hala jasota gera dadin behar den lege ondorioetarako, hasieran adierazitakoa toki eta egunez sinatzen dute

Hitzarmen hau, Oñatin 2022ko ekainaren 9an.



Izaro Elorza Arregui andrea

Jose M^a Markuleta Agirrebengoa

Luis Ugarte Sagastizabal



Elias Elorza Ugarte

Javier Aldekoa Beitia

Jose Zabaleta

Miguel

Uribeetxeberria

